Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

5350

AGINDUA, 2010eko urriaren 20koa, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko tren, tranbia eta funikularretan bidaia-txartel baliodunik gabe doazen erabiltzaileei exijitu behar zaien gutxieneko diru kopurua arautzen duena.

Lurralde Antolaketa eta Garraio Sailaren 1983ko abenduaren 27ko Aginduaren bidez, aldatu egin zen, bidaia-txartelik gabe zihoazen edo bidaia-txartela izan arren, zegokiena baina zerbitzu handiagorako erabiltzen ari zirenei exijitu beharreko gutxieneko diru kopurua. Agindu horren arabera, exijitu beharreko gutxieneko hori 750 pezeta zen, betiere, hartutako zerbitzuengatiko tarifa halako bi baino gutxiago ez bazen.

Trenbide-sektorearen egungo araubidearen arabera, garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresen eta bidaiarien arteko harremanak enpresa horiek ezarritako kontrataziorako baldintza orokorretan arautu behar dira. Hau da, baldintza orokor horietan jaso behar da baliodun bidaia-txartelik gabe doazen bidaiariei zenbateko diru kopurua exijitu behar zaien gutxienez.

Aurrekoa gorabehera eta denbora asko igaro den arren, 1983ko Aginduak indarrean jarraitzen du, baina gaur egun argi dago ez dela aski, trena, tranbia eta funikularra erabiltzen dutenen artean maularen aurka borrokatzeko disuasio-tresna gisa.

Bestetik, eta zehapena eta hertsatzeko isuna bereizten dituen doktrina joriari jarraituz, esan beharra dago, Agindu honen xedea ez dela zehatzea, jakina, baizik eta konpentsazio- eta disuasio-neurri bat ezartzea duela xede, eta neurri hori hertsatzeko isun baten bidez mamitu dela, bidaia-txartelik gabe bidaiatzen duten erabiltzaileek jokamolde horretatik urrundu eta kasuan kasuko garraio-zerbitzua ematen duen enpresak ezartzen dituen erabilpen-baldintzak errespeta ditzaten.

Era berean, agindu honekin aurreko araudia eredu ez hain zentralizatu eta eraginkor batera moldatu nahi da, kontuan izanik, gainera, beste autonomia erkidego batzuen eta Estatuaren titulartasuneko trenbide-zerbitzu gehienetan ere eredu hori dela nagusi.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

5350

ORDEN de 20 de octubre de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se regula la percepción mínima a exigir a las personas usuarias de los servicios de ferrocarril, tranvía y funicular competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco que viajen sin título válido de transporte.

La Orden de 27 de diciembre de 1983, del Departamento de Política Territorial y Transportes, vino a modificar la denominada percepción mínima a cobrar a los viajeros de ferrocarril que carecieran de billete o que, poseyéndolo, disfrutaran de unos servicios superiores a los que les correspondieren. Dicha Orden fija en 750 pesetas, la cuantía de dicha percepción mínima siempre que no resulte inferior al doble de la tarifa de los servicios disfrutados.

El nuevo escenario que se ha abierto en el sector ferroviario, pone de relieve que las relaciones entre las empresas operadoras del servicio y las personas viajeras han de venir reguladas en las condiciones generales de contratación establecidas por dichas empresas. En el marco de dicha regulación es donde debe contenerse la aplicación de la eventual percepción mínima exigible a aquellas personas viajeras que carezcan de título de transporte válido.

No obstante lo anterior y el tiempo transcurrido, la Orden de 1983 sigue vigente, considerándose en la actualidad totalmente inadecuada e insuficiente de cara a contar con un instrumento disuasorio para combatir el fraude en la utilización de los servicios por ferrocarril, tranvía y funicular.

Por otra parte, y conforme a la extensa doctrina que ha diferenciado entre sanción y multa coercitiva, es necesario expresar que la presente Orden, como no puede ser de otra manera, no se refiere ni tiene vocación sancionadora sino que su finalidad hace referencia a una medida compensatoria y disuasoria con naturaleza de multa coercitiva que aspira a que los usuarios que viajen sin título de transporte válido se aparten de dicha conducta y observen las condiciones de uso que impone la empresa operadora del servicio que se trate.

Asimismo, se configura la Orden como una adaptación de la anterior normativa a un modelo más descentralizado y eficaz, que es, por otro lado, el vigente en la mayoría de los servicios ferroviarios titularidad de otras Comunidades Autónomas y del Estado.

Azaldutakoagatik guztiagatik, honako hau

XEDATU DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko tren, tranbia eta funikularretan egiten diren garraio-zerbitzuetan, bidaia-txartel baliodunik gabe doazen bidaiariei edota bezero-txartelik gabe doazenei gutxienez exijitu beharreko diru kopurua, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak baimendutako kasuan kasuko garraio-zerbitzuen Kontratazioko Baldintza Orokorretan jasotakoa izango da.

Horiek horrela, zerbitzuak ematen dituzten enpresek, agindu hau indarrean jartzen denetik aurrera sei hilabeteko epea dute kontratazioko baldintza orokorrak aurkezteko, sailak baimendu ditzan.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Agindu honetan xedatutakora egokitutako kontratazioko baldintza orokorrak baimentzen ez diren bitartean, eta, betiere, aginduaren artikulu bakarrean ezarritako epea agortu bitartean, indarrean jarraituko du Lurralde Antolaketa eta Garraio Sailaren 1983ko abenduaren 27ko Aginduak, aldez aurretik jakinarazi gabe txartelik izan ez, bidaia luzatu edo maila goragokora aldatzen diren trenbide-bidariei ordainean hartuko zaien gutxienezko diru-eskuraketen igoerari buruzkoak. Epe hori bukatutakoan, baimena jasotzeko kontratazioko baldintza orokorrak aurkeztu ez dituzten enpresek ezin izango dute inolako diru kopururik eskatu bidaia-txartel baliodunik gabe doazen pertsonei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabeturik daude xedapen honetan ezarritakoarekin bat ez datozen maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta bereziki, Lurralde Antolaketa eta Garraio Sailaren 1983ko abenduaren 27ko Agindua, aldez aurretik jakinarazi gabe txartelik izan ez, bidaia luzatu edo maila goragokora aldatzen diren trenbide-bidariei ordainean hartuko zaien gutxienezko diru-eskuraketen igoerari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Xedapen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urriaren 20a.

Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.

En virtud de lo expuesto,

DISPONGO:

Artículo único.– En los servicios de transporte por ferrocarril, tranvía y funicular competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco, el importe de la percepción mínima exigible a las personas viajeras que no estén provistas del título de transporte válido y, en su caso, de carné de cliente, será la prevista, a tal efecto, en las correspondientes Condiciones Generales de Contratación del transporte de viajeros debidamente autorizadas por el Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

En tal sentido, las empresas operadoras de los servicios afectados deberán presentar para su autorización sus oportunas Condiciones Generales de Contratación en el plazo máximo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente Orden.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En tanto no se autoricen dentro del plazo dispuesto en el artículo único, las Condiciones Generales de Contratación adecuadas a lo dispuesto en la presente Orden, continuará vigente la Orden de 27 de diciembre de 1983, del Departamento de Política Territorial y Transportes, sobre elevación de la percepción mínima a cobrar a viajeros de ferrocarril sin billete, por prolongación de viaje o cambio a clase superior sin previo aviso. Transcurrido dicho plazo las empresas operadoras que no hayan presentado para su autorización las correspondientes Condiciones Generales de Contratación no podrán exigir ninguna percepción mínima a las personas usuarias que carezcan de título de transporte válido.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en esta disposición, y en particular, la Orden de 27 de diciembre de 1983, del Departamento de Política Territorial y Transportes, sobre elevación de la percepción mínima a cobrar a viajeros de ferrocarril sin billete, por prolongación de viaje o cambio a clase superior sin previo aviso.

DISPOSICIÓN FINAL.– Entrada en vigor.

La presente disposición entrará en vigor al día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 20 de octubre de 2010.

El Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.